


Noqua!!

H A M A B O S K A R A

2002ko uztailearen 26a VII.urtea

Usurbil, 141. zenbakia



**Lanbide Hastapena:
lan munduan murgiltzeko
aukera interesgarria**

SETABU TAILERRAK, S.M. ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA



- ✕ SOLDADURA
- ✕ BURDINEZKO ATEAK
- ✕ BURDIN SAREAK
- ✕ PLANOTIK EGINDAKO
PIEZAK

**Eskatu aurrekontua
konpromezurik gabe**

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48
FAXA: 943 37 24 67

USURBI GIDARI-ESKOLA



ESKAINITZA BEREZIA:
Matrikula: 180,30 euro (30.000 pta.)
Klaseak: 21 euro (3.500 pta.)

MATRIKULA ZAITEZ!

Kale nagusia, 5
Telf: 943 36 27 93 651 70 37 11

✕ BASERRIETARAKO:

Abere elikadurarako produktuen
horniketa eta nekazari lanerako
behar diren produktuak: ongarriak,
fitosanitarioak, tresnak, baratxantza,
haziak, patata, e.a.

✕ LORAZANTZA ETA ETXEETARAKO:

Burdindegia, plastikoak, otarrak, txakur, katu
eta txori jana

✕ BERTAKO PRODUKTUAK:

Ardoa, txakolina, sagardoa,
zainzuriak, piperrak,
babarrunak,...



**ETORRI ETA
EZAGUTU!**

BETIKO "SINDIKATYA" ORAIN BERRITYA, JENERO GEHIAGOREKIN

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14 - E-mail: alkartasuna@fcae.org

Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Aitziber!**
Abuztuaren 22an 5
urte egingo ditu.
Zorionak eta muxu
asko familia
osoaren partez!



Zorionak **Enetz!**
Abuztuaren 17an 9
urte egingo ditu.
Zorionak etxekoan
partez eta egun ona
pasa oporretan!



Zorionak **hirukote!**
a ze hiru lagun bildu
diren argazki honetan...
Hiruoi muxu handi bana.
Zorionak Eñaut, Julien eta
Maitane!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: **irailak 13**. Ekartzeko azken eguna: **irailak 6**.

Heriotzak

Maria Kruz Urdanpilleta Mitxelena

2002-VII-10

Aginaga

Kaixo Irakurle!

Oporrak direla eta, abuztuaren ez dugu alerik argitaratuko. Irailaren 13an berriro izango da **Noaua!** zuen etxeetan.

Bien bitartean, ondo pasa!

Bai, esan?

• Udala	37 19 51
• Udaltzaingoa	36 11 12
• Obrak eta Zerbitzuak	37 01 48
• Anbulategia	36 20 13
• Udaregi ikastola	36 12 16
• Udaregi (Kalezar)	36 45 00
• Agerialde ikastetxea	36 38 95
• Oiarde kiroldegia	37 24 98
• Zumarte	37 15 94
• Etumeta	37 20 01
• Taxi geltokia	36 21 78
• D.Y.A.	46 46 22
• Ertzaintza	112
• Suhiltzaileak	112
• Larrialdiak	112
• Anbulantziak	112
• Posta Kutxa	36 28 49
• Gure Pakea	37 32 28
• Gure Elkartea	37 17 51
• Arrate egoitza	36 63 40
• Eusko Tren	47 09 76
• Noaua! aldizkaria	36 03 21
• Bake epaitegia	37 23 36
• Oa farmazia	36 12 17
• Iturralde farmazia	36 33 95
• Zubietako Herri Batzarra	37 20 77
• Argindarra (Iberduero)	47 09 76

iraila

Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30						

● Hurrengo alea

Udaltzaingoa ordutegia

Astegunetan

6.00/22.00

Asteburu eta jaiegunetan

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu
deitu telefono honetara

943-361112

Noaua! aldizkaria
Bordaberri, 3
Usurbil
noaua.k.e@euskalnet.net

**Kexaren bat
baduzu, kriti-
karen bat
eskuartean**

badabilkizu edo eta herriko
zerbaitetaz hitz egin nahi
baduzu guk ikamikan toki bat
egingo dizuegu.

Eskutitzak izengoiti batekin
sinatu daitezke, baina
Noaua!n argitara emateko
guk zuen izen-abizenak jaki-
tea ezinbestekoa da. Testuak
2000 karaktere baino gutxia-
go izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur
Elkarrearen egoitzara eraman
edo postaz bidali besterik ez
duzue egin behar.

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaual Kultur Elkarte
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaual.k.e@euskalnet.net
Web orria:
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaual>

Kazetarien koordinatzailea

Imanol Ubeda

Kazetariak

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta
Agurtzane Solaberrieta

Publizitatea

Agurtzane Solaberrieta

Zuzentzailea

Eneko Harreguy

Kolaboratzaileak

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustín Esnaola, Olatz Goenaga, Urko Manterola, Eneko Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eizmendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus Urbietia, Iñaki Agirresarobe, Alex Udabe eta Mari Angeles Arruti.

Bazkidetza

Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua:

Imanol Ubeda, Amagoia Mujika,
Garikoitz Udabe, Zalao Arnaiz eta
Agurtzane Solaberrieta.

Informatika

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

Banaketa

Miren Azkonobietia, Txelo Vidal eta
Kerman Errekondo

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaual hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaual Kultur Elkarteko jendaurreko
ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00
astegunetan

AZALA:

Uda Jolas-eko haurrak dira
azalean jaso ditugunak



Droga-menpekotasunen fenomenoak Usurbilen

Txus Congil, Askagintza

Usurbilgo udalak, Ongizate Batzordearen bitartez, droga-menpekotasun fenomenoaren azterketa egitea eskatu zигun. Ikerketa honen helburuak droga-menpekotasun fenomenoaren aspektu ezberdinak aztertzea izan zen.

Arlo horiek guztiak herriko hainbat sektoreetako jendea kontutan hartuz landu dira. Tokian tokiko Droga-menpekotasunen Prebentzio Komunitarioko Plan edo proposamen honen asmoa praktikoa izatea da, baina baita fenomeno hau sortzen duten zergatiak aldatzeko ilusioarekin ere.

Aipatutako helburuak lortzeko metodologia parte hartzailea erabili dugu, sektore ezberdinetako jendeen iritzia entzun eta gai honen inguruan egindako guztia aztertuz eta alderatuz. Elkarrizketak osatzeko eta aberrasteko, sektoreka Eztabaida Taldeak burutu ditugu. Eta honekin guztiarekin, tokian tokiko Herri Plana aurkeztu dugu. Gure abiapuntua droga-menpekotasun fenomenoaren konplexutasuna kontutan hartzea izan da.

Eztula edota gripea hartzen dugunean, gehienetan arrisku faktore ezberdinek parte hartu eta elkar gurutzatu direlako izaten da. Honelako kasuetan, beste askotan bezala, bitarteko egokiak jartzen ez badira biriketako mina izateko arrisku handia izaten da. Fenomeno hau konplexua izateaz gain, globala ere bada, DROGAK-SUBSTANTZIAK

(porroak, kokaina, tabakoa, alkohola...) ez dira aspektu adierazgarrienak izaten. Drogak hartzea erabakitzen denean substantziak bere garrantzia izan arren, badaude beste faktore batzuk ere kontutan hartu beharko genituzkela, hau da, hartzea erabaki duen PERTSONA (bere egoera, kontsumitzeko arrazoiak...) eta droga horiek kontsumitzen diren INGURUNE SOZIALA ETA KULTURALA (gizartean onartuak edo onartu gabeko substantziak, lan baldintzak, egoera sozio-politikoak...).

Usurbil identitate, nortasun eta izate handiko herri bat da, aspektu horiek positiboak dira gai honen inguruan esku-hartzea eraginkorra izateko. Komunitate gisa, ezaugarri berak dituen herri batek bezainbeste arrisku ditu. Baina esan beharra daukagu bere egoera ondoko herri askorena baino hobea izan arren, honek ez gaituela kontsolatu behar.

Ezin dugu ahaztu Usurbilen katarroak, eztulak, gripeak... egon badaudela, baina baita birrikako minak ere, horietako batzuk "heriotzan" amaitu direlarik. Honi aurre egiteko ezagutzen dugun "botika" bakarra errealitateaz ondo jabetzea eta horiek eraldatzeko gogoia eta nahia izatea da. Eginkizun eta prozesu hau pozgarria eta ilusionagarria denez parte hartzeari ekin nahi diogu, ahaztu gabe benetako subjektua eta protagonista Usurbilgo herritarrak zaretela.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Milagros Arrospide: “San Esteban eguna berezia da niretzat”

Ez da lan erreza Milagrosekin kontaktatzea. Nahiz eta ziurtatu digun moduan egunero lanera joan, ez da geldirik egoten den horietakoa. Azokatan ibiltzen baita bueltaka: Zarautzen, Orion, Donostian, Lasarte-Orian, Andoaingo... Eroskiko supermerkatuak eta bestelako bezeroak ere atenditu beharra daude. Lana lotua bada ere, San Esteban eguna ospatzeko tarte hartuko duela adierazi digu.

Mantenuan ere denbora asko joango zaizue.

Ikaragarria da. Ez dago egun bat uzterik. Egunero-egunero ibili beharra dago.

Jendea aholku eske etortzen al zaizue?

Gero eta gehiago. Jendeak infomazio gehiago nahi du. Balkoiak, adibidez, orain asko zaintzen dira. Badirudi konpetentzia sortu dela eta gero eta ederrago eduki nahi da.

Uda berandu iritsi da. Piperrak ia ez dira heldu. Horrek ere eragiten du zuen sektorean?

Berdin-berdin. Nahiz kalefakzioak eta beste hainbat tresna ondo montatuta eduki, ez da berdin kalefakzioaren epeltasuna edo eguzkiaren epeltasuna. Oso diferentea da.

Ohiturak asko aldatu al dira hasi zinenetik hona?



Urtinean mugimendu handia sumatu genuen elkarriaketa egitera hurbildu ginenean.

Betidanik ezagutu dut hau. Neska kozkorretan landarea egiten zen, baratzeke landarea. Nik txoko guztiak eta inbenero landare beteta ezagutu ditut: tomateak, tipula, porrua, aza... Orduan, landare pila bat egiten zen eta udaberrian geranioak, alegriak, petunia batzuk... egiten ziren baina ez ziren kobratzen. Erregaloan ematen genituen. Loreak ez zuen balorerik.

Eta orain beitu...

Pixkanaka hasi ginen loreak landatzen eta orain, berriz, landarea utzita dugu erabat.

Zuen arloan, hauek ez dira oporrak egiteko egunak.

Zaila da; hemen egunero bada egitekorik. Urtean 8 egun hartzen ditut. Denboraldia baxua denean, negu aldean.

Baina San Estebanetan tarte txoren bat hartuko duzue, ezta?

Niretzat oso inportantea da San Esteban eguna. Goizean lan egin behar izaten dugu baina gero bazkari eder batekin zelebratuko dugu.

Gaztetako oroitzapenik izango duzu, ezta?

Bai, noski. Meza nagusia, patxintxiak, ardo goxua, erroskilak... Orain ere oso berezia da egun hori.

Imanol Ubeda

ERRAZKIN

**Igeltseritza
orokorra**

Kale Nagusia, 1
Telf: 943 37 26 79 eta 36 51 25
Santueña Mob: 629 42 05 65

MAHUKA
BEHERAPENAK

Gizon eta emakumezkoen
modako arropa guztia hemen aurkituko duzu

Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

IGELTSERITZA

URDANTZI, C.B.

Mugikorra: 649435475
649435476

☎ 943 363370- 361439

SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Omenaldi xume bat Ibai Ondo elkarte

Urtero lege, aurten ere San Inazio egunean urteko bazkaria egingo dute Ibai Ondo Elkarteko bazkideek. Baina, aurtengoak izango du bai, berezitasunik. Izan ere, elkarteko bazkide diren sei kide omenduko baitituzte, elkarteko sortzaile izateagatik.

Omenduak **Roman Zulaika, Antonio Altuna, Juan Irazusta, Enrike Uli, Raimundo Lasa** eta **Balentin Aldalur** izango dira. Ibai Ondo elkarte 1960. urtean sortu zen eta orduan eginiko lana eskertzeko asmoz aipaturiko bazkide hauei oroigarri bana emango zaie. Bazkalostean bertsolariak izango dira, giroa alaitzeko.

42 urte hauetan asko dira Ibai Ondo elkarteak egin dituen lanak. Momentu hauetan auzoan bizia duen elkarte bakarra dela esan dezakegu. Geroz eta ohitura gutxiago dago auzoan geratzeko, auzoan bertan lagunekin geratzeko, edota tragoxka batzuk hartzeko. Auzoko bizia galduz doa, ez da behintzat orain urte batzuk bezala.

Garai batean auzoko festak ere bertako koadrila ezberdinek antolatzen zituzten. Baina, hau ere bertan behera geratu zen, bertako gazteok gogo gutxi baitugu lanerako.

Urtebetez festarik gabe egon ondoren, elkarte bera izan zen testigua hartu, eta festak berriz

antolatzeari ekin ziona. Eta aurten ere izango da festarik auzoan, Alfonsok aurreko kronikan aurreratu bezala.

Festak irailaren 21 eta 22an izango dira, eta aurrerapen askorik eman ez dezakedan arren, soilik gauzatxo bat: ekitaldiz beteta datorkigula aipatu asteburua, gustu eta adin guztietarako, gainera.

Beraz, badakizue. Ez hartu konpromisorik asteburu horretan eta egin tartetxo bat auzoko koadrila eta lagunekin afaritxoren bat egin eta parranda botatzeko gure auzoan. Bukatzeko, beraz, eskerrak Ibai Ondo Elkarteari eta zorionak sei omenduei.

URDAIAGA

Alazne Begiristain



Sanestebanak!

Badirudi orain dela oso gutxi ginelak elkarri "urteberrion!" esanez, denok euroa zela eta ez zela zeharo arduratuta. Eta zer eta dagoeneko uztaila ere amaitu zaigula konturatzen gara! Hau da hau! Ematen du denbora gero eta azkarrago doala.

Konturatzerako gure Sanestebanak iritsi zaizkigu. Izango da bai festa eta umorea nahi duenarentzat! Hona etortzeko gonbidapena luzatzen dizuet guztioi. Ez zarete damutuko.

Festak ate joka ditugunez, tartetxo hau aprobetxatu nahi dut eskaera batzuk egiteko, eskatzea libre baita, nahiz eta ez ematea ere hala izan:

Batetik, eguraldiari nire eskaera: azken finean, ez dago inoren esku, baina eguraldia txarra izanez gero, inongo babesik gabe gelditzen da gure auzoa. Gainera, orain arte nahiko euri egin du eta ea abuztuaren lehen egunetan behintzat eguzkia nagusitzen den.

Eta bestetik, jendearen partehartzea eskatzen dut, hau bai baitago denon esku. Zuen gabe ez dago festarik, jenderik ez dago girorik. Badakit ez ditugula hamar taberna poteatzeko, ez dagoela aukerarik gauza ezberdinekin topatzeko. Baina, xumetasun honek ez al dio xarma berezia ematen auzoari? Ez al da honela?

Hainbeste eskatzea ote da?

Bertan ikusiko garelakoan agurtzen naiz eta ondo pasa oporrak!



KALEZAR

Urko Manterola



Aurten ere San Roke eguna ospatuko dugu

San Joanak joan zitzaizkigun. Nahiz eta eguraldi onik izan ez, ondo pasa genituen. Jendeak erantzun zuen eta orain bes-telako buruhausterik badugu.

San Joanetako kontuak buka-tu ez eta jada hasi gara San Roke eguna prestatzen. Bereha-la datorrenez, berriz ere hasiak gara bilerak egiten.

Abuztuaren 15ean, Ama Birji-naren egunean ospatuko dugu. Halaxe egin genuen iaz ere. Dena erabakia ez dagoen arren, lehengo urtean ospatu genuen tankerako eguna izan-go dela dirudi.

Iaz aspaldian Kalezarren ikusi gabeko asto karrerak izan geni-

tuen eta aurten ere berriz egi-teko asmoa dugu. Nola ez, bazkari eder bat ere antolatu dugu. Inork joan nahi badu hortxe aukera aparta. Dena den, San Roke jairako oraindik egun batzuk falta dira.

Herrian zehar San Roke egu-neko egitarau zehatzagoa banatzeko asmoa dugu.

Beraz eguna iritsi ahala, infor-mazio gehiago jasoko duzue.

Hau dena antolatuko dugu gure Udalak diru apurrik ema-ten badigu.

Besterik gabe, eta eguraldi ona egingo duelakoan, jaso nire agurrik beroena.



ATXEGALDE

Ione Eizmendi



Merkealdiak eta oporrak

Berriro ere hemen natorkizue zerbait kontatzeko asmo-tan. Uda nahiko kaskarra doa-nez kexa ugari entzuten dugu azkenaldian. Horregatik, hon-dartzarako girorik ez dagoene-an merkealdietara joateko aukera daukagu. Beti dago zer-bait erosteko, eta orain aprobe-txa genezake, arropa ez bada zapatilak edo txankletak eroste-ko, edo agian abuztuan edo irailean daukagun ezkontzaren baterako zerbait eskuratzeko.

Beste aipamen bat ere egin nahi nuke oporrei buruz; uda badoa ziztu bizian eta kontura-tzerako uztailaren bukaeran gaude. Jende asko opor usai-nean dabil; batzuk lehenago eta besteak geroxeago, egun

batzuetarako deskantsua beha-rrezkoa da. Despertadorearen txirrina entzun gabe egun batzuk pasatzea gauza ederra da, ezta? Batzuk hemendik ibili-ko gara, perretxikuak eta kama-milak bilduz, mendi aldean gozatuz, afari ederrak eginez, edo eguzkirik baldin bada hon-dartzara joateko aprobe txatuz.

Beste asko eta asko, berriz, oso urrutira joango dira, beste herrialde batzuetara, leku berriak ezagutzera. Ea norbait joaten den "Perrexil" irla ezagu-tzera!

Edonola ere, ahalik eta ondo-en igarotzea opa dizuet denori.



TXOKOALDE

Eukene Camino



Irisasiren inguruan hainbat kezka

Gaurko honetan auzotarrak dugun buruhauste bat azaltzeko asmotan naiz. Irisasi etxeko okupen egonaldiaren ondoren, zer ote dagokie orain etxe eta inguru eder hauet? Izan ere, Foru Aldundiak dagoeneko erabat bota baitu etxe hau barrutik.

Nahiz eta hasiera batean guarda etxea erreformategi batetan bihurtu behar zutela zabaldu, nire iturrien arabera, ez omen da horrela izango. Foru Aldundiko gizarte zerbitzuek adingabekoak jasotzeko egoitza izango dela diote, bertan famili arazoak (tratu txarrrak, drogak,...) jasan dituzten gazteak babesteko eta trata-

tzeko; eta, era berean, herrian integratzen lagundu, ezingo baitute bakarrik irten kalera. Gehienez hamabi lagunekopurua izango du eta gazte txo hauek hamalau eta hamasei urte bitartekoak izango dira, adin horretatik gorako gazteen zaintza Eusko Jaurlaritzari baitagokio. Nahiz eta Usurbilgo udalaren baimenik ez izan oraindik hau guztia egiteko, udalak hau onartzeko eragozpenik ez du jarriko baldin eta Foru Aldundiak eskatu eta azaldu duena betetzen badu.

Bestetik, itzal ederra ematen duen haritza, benetan zoragarria, aurkitu dezakegu Irisasiko etxe aurrean. Usurbilgo ikusga-

rrienetakoa denez, udalak hau babesteko bere inguruan hesitura bat jartzea eskatu dio Foru Aldundiari, nahiz eta dagoeneko arba handi bat hautsi dioten.

Hau guztia ikusita, hauek nire galderak: "ez al zegoen beste irtenbide alaiaagorik eta tentagarriagorik guztiontzat? Zergatik zentro hau eta ez naturari lotuta dagoen beste egitasmoren bat? Ezin al zen hau guztia auzoaren aurrean azaldu inongo erabakirik hartu aurretik? kontu hau guztia ez ote da aditza eman nahi digutena baino istorio ilunagoa?" "Ver venir", erdaraz esaten den bezala.

KALEBERRI

Eneko Harreguy



Uda(re)rik gabe jarraitu

San Estebani begira nago, baina ez -lehengo batean bezala!- San Estebanen. Ez egon nahi ez dudalako, zerbait eginaraztea galerazten naudelako baino.

Hor ikusten ditudan parajee-tan igartzen da izadia ez dagoela lehengoan. Udaberri-udako lore, landare, barazki eta belarrrak ez dira bere edertasun guztian begiz jaten. Osagai bat faltan dute, eta aberatsa da.

Bestalde, zenbat denbora Usurbildik, edota beste herri batetik, ez dudala gau izartsurik dastatzen. Kanpamenduan izaten ginen egunetan asealdi bikainak hartzen genituen, eta orain badirudi debekatu egin

zaizkigula farolak ez diren gaueko argiak ikustea.

Izarrekin oroitu naiz, hauetako egun batean mendian gauez lo egitea egokitu zaidalako, eta argi ditziratsu horiek izan ditudalako lokartu arteko lagun, bestetan ez bezala, gozagarri.

Eta zergatik ez demaplazako petriletik halakorik ikusi? Zergatik falta zaie osagai aberats hura lore, landare, barazki eta belarrei? Zergatik ezin dut, nik nahi bezala, San Estebango parkeko mahai berritugabeetan lasai irakurtzen eta idazten egon? Zergatik?

Izarrak ikusi baino, barazki

naturalak jan baino eta San Estebanen eguzki hartzen egon baino nahaigo izaten dugulako sortzen dugun poluzioa ikusi, lurrik ezagutu ez duten barazkiak jan edota eguzki izpiekin zipitzik ikustekorik ez duen beste izpiekin beltzarandu. Nahiago dugulako aldrebes jokatu.

Gure aukera izan da izadia aldatu eta hark beste norabide bat hartzea: dugun haxe. Azaleratu dezakegu beste aukera bat: uda(re)rik gabe jarraitu -gauden bezala-, edo bestela, "sekula ez da berandu izaten" lemari heldu eta gure lehengora, osasuntsuagora, itzultzen saiatu.

AGINAGA

Oskar Santamaria



Pilotalekuko obrak atzeratuta doaz

Berriz ere frontoiaz hitz egite-
ra natorkizue. Aspaldiko
aldarrikapena izan da hauxe.
Aurten bertan frontoi berria
ezagutu eta erabili ahal izango
dugu. Ametsa egi bihurtuko da,
beraz. Dena den, obrak (zori-
txarrez, ohikoa den moduan)
atzerapenarekin dihoaz. Tekni-
kariak ezarritako egutegiaren
arabera, Aginagako festetako
amaituta egon beharko luke.
Baina praktikan erritmoa ez da
aldeztatik aurretik paperean idatzi-
takoaren berbera izan. Lanean
ikusten ditugu, buru belarri.
Baina antza denez, festetarako
ez da bukatuta egongo. Hala
ere, oinarritzkoa amaituta egon-

go da: zutabe nagusiak eta
estalkia edo sabaia. Sarbideak
edo akzesook ere ordurako
amaituta egongo dira. Eta hori
ere bada zerbait. Baina beste-
lako ekipamenduak (aldagelak
eta abar) jaien ondoren ipiniko
dira.

Beraz, erdizka topatuko dugu
pilotalekua San Praixkutan. Ina-
guraziorako, beraz, zerbait
gehiago itxaron beharko dugu.
Festetako dena bukatzea ezi-
nezkoa dirudielako.

Goiko itxitura, sikiera, egina
bada gaitzerdi. Pilotan ez gara
ibiliko baina euria egiten badu
ez gara bustiko.



ZUBIETA

Alex Udabe



Hasi dira Santioak

Hasi dira festak. Egun han-
dia, Santio Eguna, ospatu
berri dugu baina jaiak hasi bes-
terik ez dira egin. Egun asko
ditugu aurretik baina ekitaldi
guztien artean honako hauek
azpimarratu nahi nituzke: oilasko
biltzaileen eguna, umeen
eguna, jubilatuen eguna... San
Inazio eguna amaitu bitartean,
beraz, asko dira Zubietara hurbil-
tzeko ditugun arrazoiak.

Ekitaldi guztien xehetasunak
aipatzeko aldizkari osoa behar-
ko nuke baina bi dira aipatu
nahi ditudan hitzorduak: lehena,
herri antzerkia. Uztailaren 26an,
gaueko 22:30etan ikus ahal izan-
go dugu aurten zubietarrek
prestatu diguten antzezpena.

Eta bigarrenik, oilasko biltzaile-
en irteera. Hauek ere, uztailaren
26an aterako dira. Goizean
goiz, 6:00etan abiatuko dira.
Etxez etxe, baserriz baserri ibili
ostean, 14:00etan iritsiko dira
irteera lekura oliasko biltzaileak.
Animatu eta parte hartu gure
festetan. Urten behin dira eta!

Obrak ere aipatu nahi nituzke.
Egun hauetan gora eta behera
ikusi ditugu berriro kamioiak.
Denbora batez dena geldirik
egon bada, orain berriro mar-
txan dira Zubietako lanak. Aipa-
tzekoa jada hasi direla etxeak
eraikitzen. Aspaldiko nahia izan
da hori. Tira, ba lehen etxe
berria Alamandegiko bordaren
azpikaldean egingo dute. Eki-



men pribatuko etxe bifamiliar
horietako bat izango da argaz-
kian ageri dena. Eta gauzak
okertzen ez badira, denbora
laburrean gainontzeko etxebizi-
tzak egingo dira.

Zorrotz betearaziko da zakurren araudia

Zakurrek kezka iturri bihurtu dira azken boladan. Gero eta zakur gehiago dago baina udal arau eta ordenantzak ez dira errespeta-tzen. Aurrerantzean zorrotz betearazteko asmoa duela adierazi berri du Udalak.

Duela hiru urte, zakurrak edukitzeari eta leku publikoak errespeta-tzeari buruzko ordenantza onartu zen. Honela dio:

"2. artikulua: bide publikoetan, zakurrak pertsona gaitu eta egoki batekin ibiliko dira, kate, uhal eta lepokoarekin lotuta, berori daraman pertsonak zakurra hurbiletik kontrolatzen ez badu behintzat, inorentzat eragozpenik eta arriskurik sor ez dezan. Bere izaera eta itxuraren arabera arriskutsuak gerta litezkeen zakurrak muturrekoarekin ibiliko dira.

3. artikulua: higiena gordezko ezinbesteko neurri moduan, zakurra daramaten pertsonak saiatuko dira hauek beren eginbeharrak kalean, lorategietan, pasealekuetan eta oro har jendea ibiltzen edo egoten den lekuetan egin ez ditzaten.

Zakurrarekin doan pertsonak aurreko lefroetan aipatutakoa lortuko ez balu, zikinkeriak berak garbitu beharko lituzke. Artikulu honek dioena ez bete-tzearen erantzunkizuna, zakurra daramanena izango da eta subsidiarioki jabearena".

Arau hauek (eta beste

batzuk) ez betetzea 5.000 pezetako isunarekin zigortuta dago.

Udalak, oster, zakurrak beren eginbeharrak asetzeko hainbat lorategi prestatu zituen. Poltsak eta ontziak jarri ziren eta lorategietan bertan instalaturiko paneletan adierazten zen ze moduan jokatu behar zen zakurrekin.

Hala ere, zakurrak parke publikoetan sartzen jarraitzen dute, Udal lorazainarengatik gero eta kexa gehiago jasotzen ditu Udalak.

Baina hori ez da jarrera honen alde egiten duen araudi bakarra. Animaliak babesteko legeak bere 8. artikuluan eta Kode Zibilak artikulua batean jasotzen duen moduan, "animaliaren edukitzailea izango da animaliak sortzen dituen kalte, hondamen eta enbarazuen erantzule".

Udala gogor jarri da eta **isunak** ezarriko dizkio **agindutakoa** betetzen ez duenari.

Lorategietako arazoa ez da zakurrek eragin duten bakarra izan. Arriskutsuak izan daitezkeen arrazak finkatu berri ditu Erret Dekretu batek. Hauek dira zerrendan ageri direnak:

Pit bull terrier, Staffordshire bull terrier, American staffordshire terrier, Rotweiler, Dogo argentinarra, Fila brasildarra, Tosa Inu, Akita Inu.

Aipatu dekretuaren arabera, arriskutsua izan daitekeen zakur



Zakur arriskutsuen jabeek hilabeteko epea dute beharrezko baimena eskuratzeko.

bat bere ardurapean duen pertsona orok udal lizentzia bat eskuratu behar du. Halaber, zakurra paseatzera ateratzen duen edonork, horretarako baimentzen duen lizentzia behar du.

Lizentziek 5 urteko balioa dute eta epe hori gaindituz gero, berriro egin behar dira. **Udalak hilabeteko epea eman die zakur arriskutsuak dituzten guztiei beharrezko baimena eskuratu dezaten.** Hainbat agiri aurkeztu behar dira. Esanguratsuenak: erantzunkizun zibileko polizaren ordainagiria, 120.000 eurokoa; eta zakurren espeziea erregistratzeko orria betetzea (Udala jada jakinarazpen hau banatzen hasi da zakur jabeen artean)

Inskribatzeko eskaera lizentziarekin batera egin daiteke, bestela lizentzia eskuratzen denetik beste 15 eguneko epea dute inskribapena egiteko. Horretarako dokumentazio gehiago aurkeztu behar da. Hirigintza bulegoetan jasoko duzue informazio gehiago.

Pinturas

Ion



943 83 09 37 ☎ 670 397504

Kalkos kopisteria

- ☎ Fotokopiak
- ☎ Fotokopiak koloretan
- ☎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ☎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ☎ Planoen kopiak (AO arte)
- ☎ Ordenadoreko lanak
- ☎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak, liburua)
- ☎ Zure argazkia puzzle batean

Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55

JOSUE
ARANZAZISTROKI

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enca. 6 Telf: 943 36 05 50
Kaleazar 606 37 21 05

Liburutegiko lan deialdira aurkezteko epea ireki da

Lanpostuaren titularrak amatasun bajari helduz lurbeteko eszedentzia eskatu du. Halaber, oporretan dagoen bitartean lanpostua hutsik geratuko da. Hori betetzeko lehiaketa jarri da martxan. Libre izaerako oposaketa-lehiaketa sistemaren bidez zehaztuko da liburutegiko laguntzaile langile berria. Lanpostua, bistan denez, behin-behinekoa izango da, bajak irauten duen bitartean.

Instantziak, Udalaren Erregistro Nagusia aurkeztu behar dira. Deialdi honen iragarkia uztailaren 16an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Ondorengo 20 eguneko epean egin bete behar dira eskaera-orriak. Informazio gehiago uda-

letxean bertan jaso ahal izango duzue.

Instantziak aurkezteko epea amaiturik, Alkateak onartutako eta baztertutako izengaien behin behineko zerrenda eman go du Udaletxeko Iragarki Taulan ikusgai jarriko da zerrenda, adierazi erabakia argitaratu eta biharamunetik kontaturiko 10 egun naturaleko epean, alegazioak jarri ahal izan daitezten.

Alkatea edo honek izendatutako pertsona izango da epai-mahaiburua. Eta mahaikideak: bibliotekako arduraduna, beste Udal batetako bibliotekako arduraduna, Euskaltegiko ordezkari bat, udaleko langile komiteko kide bat edo komiteak izendatutako ordezkari bat eta idazkaria (korporazioarena edo honen ordezkaria).

Lanpostuaren betebeharrak

-Udal liburutegiko egitaraua eta jarduerak teknikoki sustatu, aholkua eskaini eta laguntzea, batez ere haurren artean irakurketa sustatzeko jarduera didaktiko guztiak.

-Liburutegia eta bertan burutzen diren jarduerak zuzendu eta gestionatu.

-Liburutegi bateko propio izan daitezkeen haur, guraso eta irakasleei zuzenduriko jarduera orokor eta berezien programazioa eta jarraipena egitea.

-Liburu eta aldizkarien sailkapena eta katalogazioa.

-Liburuen mailegua eta kontrola.

-Liburu eta aldizkarien zaintze-lanak.

-Liburuei eta aldizkariei buruzko kontsulten erantzunak.

Liburuzain laguntzaile lanpostuarekin bat doazen beste hainbat lan eta Udalak lanpostu horrekin bat doazen eta agindu diezaiokeen beste lan batzuk.

► Euskarazko egitasmoak elkarlanean garatzeko proposamena

Buruntzaldeako kirol zerbitzuak badostu ziren lehen-lehenik. Orain, udaletxe horietan euskarazko egitasmoak elkarlanean garatzeko plana aztertzen ari dira. Plan hau 2002-2003an jarriko litzateke martxan eta egitasmo honen arabera hainbat kanpainak elkarlanean garatuko litzukete Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udal euskara zerbitzuek.

► Dirulaguntza eman zaie Buztinzulo taldeari eta Udako Txokoari

Uztailaren 16ko gobernu batzordeak Buztinzulo zeramika taldeari 1.803 euroko dirulaguntza ematea erabaki zuen. Diru honekin zeramika txikiak lantzeko labe txiki bat erosiko da.

Halaber, Zubietako Udako Txokoa dabilzan haurren aseguruare ere Udalak hartu du bere gain: 463,28 euro.

► Kultur Etxe berriko obrak irailean esleitu nahi ditu Udalak

Ustekabeen, Kultur Etxe berria eraikitzeko deialdira ez zen enpresarik aurkeztu. Oinarrietan, ordea, akats bat egon da, arkitektoak berak onartu duenez. Oinarriak berrikusi, akatsa konpondu eta berriz egingo da lehiaketa-deialdia. Uztailako azken plenoan lehiaketa berriaren oinarriak onartu dira. Abuztuan ikusgai jarriko da proiektua eta irailean obra esleituko du udalak.

GALARRA GARRAIO

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46



txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitarlekokoak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 936 36 04 66

Ofizio bat ikasteko aukera eskaintzen du Lanbide Hastapeneko Ikastetxeak

Oporretan gara eta baten bati titularra harritzekoa egingo zitzaien. Gehienok badakigu irailetik aurrera zer egin behar dugun. Baina bada sektore bat langabetuek edota ikasketak utzita daudenek osatzen dutena. Hauentzat ikastaro ezberdinak antolatu ditu Usurbilgo Lanbide Ikastetxeak beste bost udalerrri eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean. Izena emateko epea zabalik dago eta kontuan izan plazak mugatuak direla.

Idoia Beloki Agerialdeko ikastetxeko koordinatzailea da eta ikastaro hauen xedea argitu nahi izan digu lehen-lehenik: "1989. urtean Eusko Jaurlaritzak hezkuntza arautuan hutsune bat sumatu zuen. Klean geratzen zen jendeari alternatiba bat eskaini asmoz abiatu zen programa hau. Eusko Jaurlaritza harremanetan jarri zen udaletxe-

ekin eta elkarlanean adostu zuten ekimen hau". Geroztik, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbilgo udalak eskaintza bateratua egiten dute.

Ikastaroak ez dira arlo teorikoan geratzen. Ikasleek enprestan praktikak egiteko aukera baitute. Ez hori bakarrik, ikastaro hauetako ikasleei berriro ikasketen mundura itzultzeko bidea ere ematen zaie: DBH graduatu titulua eskuratzeko laguntza eskainiz edota lanbide heziketan murgiltzeko aukera irekiaz.

Ikastaroen eskaintza urtez urte aldatuz joan da. Aurten, sukaldaritza eta gozogintza zein ile-apainketa eta estetika ikastaroak eskainiko dira Agerialden. Lasarten, aldiz, obrako zurgintza eta igeltseritzakoak. Andoainen, galdaragintza eta autoen txapa eta pintura; eta Hernanin, autoen mekanika.

2002-2003 Ikasturtea

Espezialidadeak

Sukaldaritza eta gozogintza*, ile-apainketa eta estetika*, obrako zurgintza, igeltseritza, galdaragintza, autoen txapa eta pintura, autoen mekanika.

* Agerialdeko egoitzan.

Nori zuzendua

16 eta 21 urte bitarteko gazteak, Usurbilgo herritarrak, ikasten ari ez direnak edota langabezia daudenak.

Izen-ematea

Uztailan, irailaren 2tik 20era, Udaletxean. 943 37 19 51.

Sustatzaileak

Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani, Usurbil eta Astigarrago Udalak. Eusko Jaurlaritza.



Sukaldaritza eta gozogintza ikastaroko ikasleei ere praktikak egiteko aukera eskaintzen zaie.



Ile apainketa eta estetika ikastaroan ikasleek lan munduan murgiltzeko behar diren ezagutzak jasotzen dituzte.

ITURGINTZA

**JOSEBA
ARANGUREN**

Telf: 943 83 00 72

HERRIKO TABERNA

Astebukaeretan bokatak, plater konbinatuak, pintxo beroak...

Telf. 943 36 02 17

Euskaral presioak etxera!



Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

LABE-GOXO
Oktidologia - Geroztologia

Nafarroa Oinez laguntzeko salgai jarri dira piperrak eta zainzuriak

Nafarroa Oinez urriaren 20ean ospatuko da. Aurten Tuteran izan da herri aukeratua eta lema, "Muga guztien gaineratik". Argia Ikastolari egokitu zaio aurtengo jaialdiaren antolaketa. Hiru hilabete falta dira baina hala ere martxan da aurtengo kanpaina. Amua? Nafarroako piperrak eta zainzuriak.

Mahuka dendan salgai jarri dituzte Argia Ikastolaren aldeko piperrak eta zainzuriak. Piperrak 3,36 eurotan potea. Zainzuriak, aldiz, 5,79 euro pote bakoitza. Kalitatezko elikagaiak kontsumituz Nafarroa Oinez laguntzeko aukera eskaini zaigu aurtengotan. Kalitatezkoak direla diogu, Lodosako piperrak eta zainzuriak baitira Mahukan salgai jarri dituztenak. Erreserba ere egin dezakezu honako telefono zenbakian: 943 36 11 06.



URRIKO HITZORDUAK

Urriak 6, igandea

Kilometroak, Zumarragan.

Urriak 20, igandea

Nafarroa Oinez, Tuteran.

Usurbil FT taldea lanean hasi da jada

Usurbil FT taldearen zuzendaritza jada hasi da denboraldi berria izango dena prestatzen.



Irailetik aurrera hiru izango dira Usurbil FT taldeak lehiaketan jarriko dituen taldeak: erregionala edo herrialdekoa, kadetea eta emakumezkoa. Aipatzekoa da hiru urteren ostean berriro osatuko dela erregional mailako futbol-taldea.

Hau guztia bete ahal izateko diru premian dabil taldea. Prentsa-ohar baten bitartez, bazkideak egin eta sponsorrak lortzeko ahalegin berezia egingo duela jakinarazi du zuzendaritzak.

Presoen aldeko mobilizazio berri bat

Presoen aldeko lagunek beste mobilizazio berri bat egin zuten herrian. Uztailaren 19an eginiko giza kate batekin aldarrikatu zituzten presoiei dagozkien eskubideak.



Guinness liburuan sartuko den bizikleta egin da Lanbide Eskolan

Usurbilgo Lanbide Eskolak Dionisio Coronadoren egitasmoa hezurmamitu du: munduko bizikleta arinena egitea.

Prentsaurrekoan izan ziren Patxi Vaquerizo Lanbide Eskolako zuzendaria, EHUKo Jose Maria San Juan katedratikoa, Jose Mari Yurreamendi mekanika irakaslea eta Dionisio Coronado bera.



Lanbide Eskolan egin den bizikleta hau munduko arinena da, 4.535 kg-koa.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

JOSE AIZPURUA UNANUE

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea

Fatxadaren konponketa



Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67

Jose Antonio Altuna: “Batzorde guztiak kudeatzeko gai izan gara”

Alderdi politikoei eskaini-tako tarte hau apirilean zabaldu genuen. Ordu-tik, oposizioan dauden aho-tsa entzun dugu. Orain, indarre-an den alderdiaren txanda da. Lau legealdi egin ditu karguan Jose Antonio Altunak. Urrutiko eta gertuko kontuak izan ditu-gu hizpide. Halaber, argi utzi du ez dela datozen hauteskun-deetara aurkeztuko.

Garai zailak bizi ditu Ezker Abertzaleak. Garzonek indarre-an jarri duen enbargoak nola-ko eragina izan du Usurbilen?

Estatuaren erabakia Ezker Abertzalea suntsitzea da. Guk ez badiogu erantzuten Garzo-nek edo Aznarrek nahi dutena egingo dute. Garaien arabera antolaketa modu berriak egin beharko ditugu. Gaur egun, Aitzagako kontua blokeatuta daukagu, eta Batasuna bezala funtzionatzea debekatzen zaigu, ezin dugu Batasunaren izenean konturik ireki. Hori oso larria da.

Illegalizazio kasuan, nola arti-kulatuko zarete politikoki?

Lotsagarria iruditzen zaigu iritsi garen tokira iritea. Gizarteak onartu egin du ilegalizatuak izango garela, eta hori oso larria da. Hala ere, larriena PNV eta EAren jokaera da, beraien onarpena eta isiltasunarekin eta Ezker Abertzalea isolatzeko jarrerarekin, gu ilegalizatzea lor-tuko baita. Horren adibide gar-bia, EAEko parlamentuan duela gutxi egin den babes eskaera, ez omen da parla-mentuaren konpetentzia eta ez gaituzte babestuko. Aurrera begira nola artikulatu? Denbo-raren eta egoeraren arabera egokituko gara, oraintxe izenez aldatu dugu taldea: Usurbilgo Sozialista Abertzaleak.

Ordenamendu juridiko berri bat abiaraztea onartu berri du Eusko Legebiltzarrak. Hortik iri-

tsiko al daiteke konponbidea?

Batasuna parla-mentuko puntu horretan abstenitu egin zen, lurraldetasun, autodetermi-nazio eta herri kon-tsulten minimoak betetzen zituelako. EAEn zenbat eta ahalmen edo kon-petentzi gehiago izan, ba hobe, baina Euskal Herriko zati batetaz ari gara hitz egiten, orokortasun eta lurralde batasunaren bila joan behar gara. Marko autonomi-koa ez da bidea, marko gaindi-ketak bilatu behar ditugu.

PNVk eta EAK lehen ere egi-nak dituzte hordago ugari (kon-tzertu ekonomikoan kupoa ez omen zuten ordainduko, hez-kuntzako kalitate legearen aurrean desobedientzi formak landuko zirela, Euskal Herriko unibertsitate baten alde...) eta azkenik, hordago mediatikoak izan dira, 31erako hordagoa, eta jokorik ez. Horrelako karte-kin ezin da bakerik lortu. Gu iso-latuta ez dago bakerik, elkar-lan eta elkarriketaren ondorioz iritsiko da, ez isolamendua era-biliz.

“Borondate onenarekin lan asko egin dugu”

Batasunako prozesuan ezker abertzalea ez zen indarturik atera. Hemen nola jarritu duzue barne-eztabaida hori?

Usurbilen ez da arazo aipa-garirik izan. Baina maila oroko-rean hitz egiten badugu, Ara-larrekoek ez dute sekula bata-suna prozesuan sinestu. Proze-sua hasi bai, baina beraien tesiak gehiengoak onartzen ez zituenez, prozesutik atera egin ziren. Minimo demokratikotik ez



Etorkizunari begira lanean jarraitzen du udal gobernuak.

dutela erakutsi dute. Ez dute gehiengoa errespetatu.

Azken hiru urte hauetako balantzea egiguzue.

Gure balorazioa oso positi-boa da. Beste alderdi politikoei elkarlanerako deia egin bage-nien ere, eta EAKoekin gobernu akordio bat bete bagenuen ere, hori haustean batzorde guztien ardura eta lana gure gain erori da. Hartutako zama-rekin aurrera egin dugu. Eta dena kudeatzeko gai garela demostratu dugu. Borondaterik onenarekin lan asko egin dugu, eta horra hor ondorioak: herri-tarrei eskainitako zerbitzuak handitu egin ditugu, eta zeu-denak hobetu. Eta horretan jarraitzen dugu.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira Usurbilek dituen erronkak?

Herri programa batekin lortu-ko dugu etorkizunerako lan ildoak zeintzuk izango diren, pertsona ezberdin eta talde ezberdinekin egindako progra-ma bat izango da. Hor definitu-ko dira erronkak zeintzuk izango diren. Erronka orokor gisa, Usur-bil euskaldun, libre eta bakean biziko dena izango da helburu-rik onena.

EArekin legealdi hitzarmena sinatu zenuten baina akordioak ez zuen luze iraun. Nola balo-

ratzen duzue harrez geroztik EAren oposizioa?

EArekin batera proiektuak egin genituen, gobernu programa egin genuen elkarrekin. Beraiekin ditugun harremanak onak badira ere, beraientzat Euskal Herrian zegoen giro politikoa jasanezina izan da. Ezker Abertzalearekin kateak hautsi behar zituzten, eta hautsi zituzten. Pena ematen duen erabakia, elkarlana beti positiboagoa baita. Orain egiten duten oposizioa oso txikia da, eta hori herriaren kalterako da. Oposizio

txukun bat baita egokiena.

Eta PNVk egin duena?

PNVkoen jarrera hain izan da grabea ze beraiekin ditugun giza harremanak erabat eten ditugun. Gezurretan oinarrituriko oposizioa egin nahi izan dute, eta hori beraiek ere badakite. Gizatasunik eza izan da gauzarik grabeena, eta guk hartutako jarrera ez da haseraldi baten ondorioz egindakoa. Erabakia hotzean hartu genuen, eta ez dugu damurik egindakoaz. Denborak jarriko du pertsona bakoitza bere

tokian.

Gezurretan aritu direla (eta horren lekuko EAKo kideak, herritarrak eta udal langileak dira) publikoki onartzen dutenean onartuko ditugu oposizio gisa, pertsona gisa? Beraiek beren gizatasuna inoiz erreku-peratzen dutenean, posible bada behintzat.

Hauteskundeak hemen dira. Etorkizuneko lan-taldea defini- tzen hasi al zarete?

Herri Batzordea hasia dago lanean, izango duzue horren berri.

“Ez naiz hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko”

Urte asko egin dituzu kar- guan. Zeintzu izan dira une zailenak eta zeintzuk gozo- enak?

Egia da urte asko pasa ditudala karguan, beharbada gehiegi. Hasiera izan zen gogorrena, ez ahaztu nire betiko lantegia utzi behar izan nuela, ete lehengo nire lanak oraingo hauekin zer ikusirik ez zuela. Hala ere, oro har, lan honetan ere nahiko ondo moldatu naizela uste dut, bai herriarekiko harremanei dagokionez, baita kanpokoekikoei dagokionez.

Bestalde, une goxoak izan dira, noski baietz. Batez ere, zerbitzu berriak lortzean eta hauek herritarrei eskaintzean (kiroldegia, hilerria, kultur etxea, frontoiak, urbanizazio berritzeak, auzo guztietan aurre-eskolak, Eguneako Zentroa...). Oso pozgarria da herritarrak gustura ikustea. Horrexek ematen dit aurrera segitzeko indarra, jendea gustura ikusteak. Bestela ez du merezi aritzeak. Herritarrekin harreman oso onak eta pozgarriak izan ditut, nahiz eta gutxi batzuekin horrelako zor-terik ez izan.

Oposizioak zertan lagundu, zertan oztopatu du zure lana?

Oposizioa hiru taldetan

banatzen da. Batetik EAJ; aurreko legegintzalditan lehenago aipatutako bide berdina izan da: zenbat eta harreman edo elkarrizketa gutxiago izan, orduan eta okerrago. Beraz, laguntzarik bat ere ez, eta oraingo legegintzaldi honetan berriz errematea eman dute lehenago aipatu bezala. Niri egindakoa, edo egin nahi zidatena, ez zait sekula ahaztuko, eta ahazten ez bada, ezin da barkatu.

Bestetik EA; oro har, harreman onak izan ditugu nahiz eta desadostasun asko izan. Desadostasunak izanagatik harremanak ez dira galdu eta hori ona da. Guretzat ez dira oztopo izan, eztabaida zaleak baizik.

Azkenik PSOE dugu; legegintzaldi guztietan gauza bera aportatu dute: ezer ez.

Hauteskundeak gainean ditugu. Aurkezteko asmorik?

Hurrengo hauteskundeetan ez naiz aurkeztuko, erabakia hartua dut. Batetik, nahiko nekatuta sentitzen naiz; eta bestetik, aldaketa beharrezkoa da. Usurbilen, lan hau oso ondo eramango lukeen jende asko dago; jende oso ona dator atzetik.

Zer egiteko asmoa duzu?



Lehen bi hilabetetan zeharo deskonektatu nahiko nuke. Deskonektatu eta aurrerantzean egin beharrekoak hausnartu, bizimodua nola antolatuko dudan erabaki.

Hemen duzu herritarrengana zuzentzeko aukera.

Aukera aprobetxatuz, beti esan dudana gogoratuko nuke berriro ere: egin dudan guztia, nahiz batzuentzat onerako eta besteentzat okerrera-ko iruditu, beti herritar guztien onerako izango zitekeena egiten saiatu naizela; zuzen ala oker horixe izan dela nire helburu bakarra: gehiengoaren onura bilatzea. Horixe izan da hain zuzen, nire konpentsazioa eta poza. Hori ulertzea eskatuko nizueke denoi, eta eskerrik asko denoi.

Arau subsidiarioen behin-betiko irizpide eta helburuak finkatu dira

Arau subsidiarioak aldatzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Udalak planaren aurrerapena erakusketara publikoan izan du orain gutxi arte. Bertan herritarrei nahiz alderdi politikoei alegazioak aurkezteko aukera eman zitzaion. Epealdi horretan talde erredaktatzaileak arau subsidiarioen aurrerapenean ezarritako irizpide eta helburu orokorrei hainbat iradokizun egin zaizkio. Aipatu iradokizunak udal talde ezberdinek aztertu dituzte jada, baita osoko bilkuran onartu ere. Era honetara, behin-betiko irizpide eta helburuak ezarri dira, izapidetu behar den arauen dokumentuan jasok izan daitezkeen.

Irizpide orokorrak, beraz, onartu dira dagoeneko. Erreporaje honetan egin diren zuzenketak ze arlori eragiten dioten jasotzen da.

1) Lurzoru Sailkapena:

Aurrerapenean eginiko hainbat proposamen aldatzen dira, lurzoruaren sailkapenari dago-kionez. Izan ere, hiri eta hiritargi lurzoruaren mugapena ematen baita, industri nahiz egoitzazko okupaziorako arriskua saihestuz hainbat zonaldeetan. Honen adibide dugu Kalezarko kasua. Aurrerapenean Portaletik gorako lurak hiri lurak izendatzen badira ere (legearen arabera, hauek urbanizagarriak direlako), honi eginiko ale-



Kaxkoaren hazkundea Anaerreka arte egingo da, horixe izango da muga.

gazioen ondorioz, nekazal lurak izendatzen ditu udalak, lur hauetan eraikitzeko arriskua saihesteko.

Hortaz, muga Anaerrekan zehazten da. Hots, kaxkoaren hazkundea hor mugatuko litzateke eta hortik gora ez litzateke gehiago eraikiko.

Honek ez du esan nahi Kalezarren bertan ez litzakeenik ezer gehiago eraikiko. Izan ere, Kalezarren beharrei erantzuteko hainbat ekipamendu egingo baitira, aparkaleku bat eta aterpe bat kasu. Ildo honetatik aipatu behar da (hala jasota dagoelako), beste auzoetako behar bereziek ere lehentasunezko arreta izango dutela. Helburua da auzo bakoitzak aterpe bat izatea, kasu batzuetan frontoia izango dena; Santuenea kasu.

Egoitzazko plangintzari dago-kionez, babeseko etxebizitzetara lehentasuna ematen zaio eremu berriak okupatzerakoan. Guztira, hurrengo hamar urteetan 500 etxebizitza inguru eraikitzea aurreikusten da, hauetatik 250 babes ofizialekoak. Hala ere, zenbat etxebizitza eraikiko diren arau subsidiarioen dokumentuan jasoko da, zehatz mehatz.

Aginagako saihesbidea bertan behera geratu da

Bestetik, talde erredaktatzaileak Aginagan proposaturiko saihesbidea ezabatzeko iradokizuna Udalbatzak berea egin du.

Diagnostikoa garatu zenean, Txokoaldeko sarrera/irteerari eta Aginagako errepideari konponbidea eman behar

**MIKEL
IZAGIRRE**

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Telf: 943 36 50 95
Mobila: 609068111

LATAILLADE

**ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK**

ARIZTITXO KALEA, 8 BEHERA
20170 USURBIL

TLF: (943) 36 26 35- 36 33 48
Mobila: 609 888021

**HAUR
JANTZIAK**

Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

zitzaiola ikusten zen. Hori dela eta, talde erredaktatzaileak proposamen bat egin zuen, errepidearen arazoa konpontzeko eta, bestetik, Aginagari garapenerako aukera gehiago emateko: Txokoaldeko sarreran errotonda bat egitea, gasolinera aldamenean, eta N-634 errepidea erriberatik barrena zeharkatzea, irteera Mapilen jarritz. Era honetara, Aginagan herri barruko bidean bilakatuko litzateke oraingo N-634 eta, bestetik ere, errepide berritik gora emango litzateke Aginagaren garapena.

Baina, lehen esan bezala, proposamen hau bertan behera gelditu da. Izan ere, udalak eta herritarrak erriberako lurrak nekazal lur bezala babestu nahi dituelako, nekazaritzarako lur aberatsak direlako. Beraz, N-634 errepidea dagoen bezala geratzen da. Eta, Aginagaren garapena errepidetik gora emango da, orain arte bezala.

Industrialde berri bat egiteko proposamena Aritzeta parean

Askok hala uste ez arren, momentu honetan Usurbilek ez du lur gehiagorik industriarako. Hori dela eta, eta beharra badagoenez, arkitekto taldea eta udala proposamen bat lantzen ari dira. Txikiardi eta N-1 errepidea Aritzeta parean lotzen diren tokian - Luzuriaga-Fagor pareko mendian, Bulano etxea arte- dentsitate baxuko industrialde berri bat eraikitze-ko planteamendua dago mahai gainean.

Joxe Antonio Atunak adierazi digunez, "industrialde hau berezia izango litzateke, beste

irizpide batekin jokatu nahi dugulako. Zonalde industrialdetan dagoen aprobetxamendu normala %40koa baldin bada - lur brutoan ehun metro hartzen dituzunean, aprobetxagarria industriarako %40 da, gainontzekoa bestelako ekipamenduentzat izaten da -, hemen aprobetxamendu baxuagokoa egitea planteatzen dugu. Maldatik behera industriarako eta goikaldean zonalde berdea egingo litzateke, baso baten antzera".

2) Ekipamenduak eta Sistema Orokorrak

Egun indarrean dauden arauen garapen epean mahai gaineratutako aldaketa puntualak jasoko dira prestatzen ari den araudi berrian. Horren lekuko dugu Txokoaldeko aparkalekua.

Bestetik, lehentasunezko jarduerak emango dira Santueñan eta Kalezarren. Lehen aipatu dugun bezala, udalaren asmoa eta irizpidea auzo bakoitzak aterpe bana izatea da, Aginagan egin den beza-

la, frontoia eraikiz.

Bestetik, Euskotrenek duen asmo berria jasoko da; hau da, trenbide sarearen bikoizketa proiektua jasotzea, egun erredakzio lanetan dagoena.

Atal honekin amaitzeko, azpiegitura berri eta telekomunikabide sare berrien inplementazioari arreta berezia ematen zaio, eta, zerbitzu arrazionalizatua bideratuko duen arau osagarri bereziak ezarriko dira.


3) Iritzi gehigarriak

Azken atal honetan, bi elementu daude kontutan hartze-koak. Batetik, dauden egoitzazko eraikuntzen behe solairuetako merkataritza erabilen ordezkio proposamenak landuko dira. Hau da, behe solairu hauek etxebizitzak bihurtzeko asmoa. Bestetik, ordezkio bidegorri eta oinezko bideen soluziobideak planteatutako iradokizunak jaso dira eta talde erredaktatzaileak definitutakoei erantsiko zaizkie.

Agurtzane Solaberrieta



Dentsitate baxuko industrialde berria Luzuriagaren parean eraikitze asmoa dago.



Igandetan ganba-ziri mundialak!

TABERNA-JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL

TEL: 943 37 03 44



Alemaniarako Munduko Txapelketan lehiatuko da Amador Granado

Txirrindularitza egokituan onenen artean da Amador Granado. Horregatik hautatu dute Alemanian ospatuko den Munduko Txapelketarako. Gogotsu dabil badakiela onenen artean egon daitekeela. Sevillan egin berri den Espainiarako Txapelketan fin aritu da. Baina Alemania da aurtengo zita garrantzitsua.

Gustura Sevillan egindakoa-rekin?

Iaz Europako Txapelketan brontzezko domina bat irabazi nuen. Aurtengo Munduko Txapelketara joateko nirekin kontatzen zuela esan zidan entrenatzaileak. Horregatik aurtengo ez dut bete-betean Espainiarako txapelketa prestatu, Mundukoak baizik. Emaizak onak dira baina gehiago egitea daukat.

Jada sasoi betean izango zara.

Egun hauetan topera nabil entrenatzen. Abuztuaren 2an abiatuko gara Madrildik Alemaniara. Baina egun batzuk lehenago, Bartzelonan kontzentratuko gara.

Munduko Txapelketaren arian, nola ikusten duzu zure burua?

Aukerak baditut baina jendea ondo prestatuta joango da. Iraupeneko frogak da nirea baina azken bolada honetan ohartu gara pista ongi egoki-



Abuztuaren hasieran Alemanian egingo den Munduko Txapelketan onenen artean lehiatuko da Amador Granado.

tzen naizela.

35 urte dituzu. Alemaniakoa izango da azken aukera?

Bai hala da. Ea Atenas 2004ra joateko aukera dudan. Hor amaitu nahi nuke nire ibilbidea. Gero eta gogorrago egiten zait hau dena. 18:00etan ateratzen naiz lanetik. Segituan entrenatzera eta gauez iristen naiz etxera.

Gainera ez duzue behar beste babesik jasotzen, ezta?

Gauzak aldatuz doaz baina zentzu horretan oraindik asko dago egiteko. Oso urrutia gaude beste herri batzuekin alderatzen bagara. Frantzia, esate

baterako, beka eta laguntza asko jasotzen dituzte.

Ni Arabako Zuzenak taldeko kide naiz. Euskaltelek soilik arropa ematen digu. Gipuzkoako Federazioak asko lagundu nau. Jubenilekin korritzen uzten didate. Oso gustura nabil beraiekin baina oso azkar dabilta!

Euskal Bizikletan omenaldi egin zitzaizuen Zubeldia anaiei eta zuri. Eskertzekoa izango da, ezta?

Dudarik gabe. Zure herrian bertan zutaz gogoratzea gauza polita baita.

ESTETIKA ZENTROA

LOURDES LARRAÑAGA

- Depilazioak
- Aurrepegi tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87



Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA AUTOZERBITZUA

FRUTAK
BARAZKIAK
ETXEKO PRODUKTUAK
KONGELATUAK



txeko berri

Noaual! 141.zk. Usurbil 19

2002ko uztailaren 26a

Udal fototekaren lanarekin abuztuaren hasieran hasiko gara berriz ere

Usurbilgo udalak Noaual! Kultur Elkartearekin kontratatu du udal fototekako digitalizazioa, antolaketa eta informazio bilketa egiteko. Kontratuak sei hilabeteko iraupena izango du eta gobernu batzordeak kontratua luzatzea erabaki dezake, gehienera ere 4 urte bete artean, baldin eta bi aldeak ados badaude. Beraz, abuztuaren hasieran berriz ere ekingo diogu udal fototekaren lanari, herritarren zerbitzura lehenbailehen jaritzeko. Lan honetan Zaloe Arnaiz herritarra arituko da.

Urtebete igaro da Udal fototekaren abenturan abiatu ginela. Orduan, udalak Eusko Ikaskuntzaren bitartez beka bat kaleratu zuen, eta Noaual! egokitu zitzaion fototekaren lana egitea.

Proiektua martxan jarri zenean honako helburu hau ezartzen genuen: udal fototekako argazkien digitalizazioa, antolaketa eta informazio bilketa egitea. Helburu horretatik, agian, igaro berri dugun urte honetan oso urruti egon gaitzeko. Izan ere, iazko maiatzan ze uretan sartzen ginen ez bai-kenekien oso ongi. Ezartzen genuen helburua bere osotasunean bete ez bada ere, iazko urtean urrats kualitatibo nahiz kuantitatibo nabarmenak eman genituen. Udal fototekaren oinarria den datu-basea egina dugu, eta lan



hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Gainera, udal artxiboan zeuden argazkien antolaketa ere egina dago.

Gure helburu nagusia udal fototeka lehenbailehen herritarren zerbitzura jartzea izango da. Baina, horretarako, ahalik eta argazki kopuru handiena digitalizatuta izatea funtsezkoa da, produktu eta lan duina eskaintzen duen zerbitzu bat herritarren eskura jartzeko.

Bide honetan, helburuak mailakatzea ezinbestekoa zaigu; epe luzerako nahiz epe ertaineko lehentasunak definituz.

- EPE LUZERAKO HELBURUA:

Udal fototeka mardula osatzea, milaka argazki digitalizatuta izatea (udal artxiboan daudenak, Noaual!ko artxi-

boa, herritarren argazkiak, erakunde pribatuaren argazkiak...) eta argazki bakoitzak bere fitxa osatuta izatea.

- EPE ERTAINEKO HELBURUA:

Udal artxiboan dauden argazki guztiak digitalizatu eta udal fototeka herritarren zerbitzura lehenbailehen jarri. **Hauxe da lehen sei hilabete hauetan egingo dugun lana.**


Bestetik, udala fototeka herritarren zerbitzura jartzeko beharrezko erabakiak diseinatzeko ari da: argazkien erabilpen baimenak, udal fototekak eskainiko dituen zerbitzuak zehaztu eta hauek eskuratzeko araudia eta prozedura diseinatzeko ari da.

Beraz, laster fototeka zuen eskura egongo den zerbitzuan bilakatuko dugu guztiok.

P A T R I

J A T E T X E A
Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Telf: 943 36 13 98

N • I

Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,
makilajea eta manikura

Aritzeta 2-2 1.A
Tel.: 943 36 19 51


DENBORAPASAK

Batzuk oporretara joatekotan izango zarete. Beste batzuk, jada bueltan. Baina badira udan lanean aritzen direnak. Hala ere, batzuk eta besteak, uda partean aisialdirako denbora gehiago hartu ohi dugu. Horregatik atal hau jasotzea egokia iruditu zaigu. Bost dira hautatu ditugun denborapa-

sak. Guztiak asmatu, emaitzak sobre batean sartu eta Noaia!ko egoitzara bidali. Asmatzailleen artean "La Perla"-ra joateko bi sarrera zozketatuko ditugu.

Ez galdu aukera berri hau. Irailaren 13an argitaratuko dugu irabazlearen izena. Bien bitartean, zorte on eta ondo pasa!


1 HITZ GEZIDUNAK



2 KALEAN GORA, KALEAN BEHERA...


Goitik eta behetik letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- | | |
|-----------------|--------------|
| 1. Otordu | 6. Eske |
| 2. Gorputz atal | 7. Prezio |
| 3. Ile | 8. Azeitunak |
| 4. Jostailua | 9. Aldamia |
| 5. Baiezatzeko | |




3 Goitik behera eta ezker eskuin, hitz bat eta bera.

- Sei gehi sei
- Euskal mendialdea
- Harila
- Pozik
- Elkarte
- Laidoa



- Txapel
- Gogoak
- Itsas lapurra
- Erditzen laguntzen duen pertsona
- Erromatarren hizkuntza
- Izanak



4 GOAZEN OPORRETARA!

Itziar, Ane, Koldo eta Aitorrek egun batzuk igaroko dituzte oporretan. Ondoko arrastoetan oinarrituta, ea asmatzen duzun gure lagunen egonaldiaren lekua, zein hilabete aukeratu duten eta zenbat egun emango duten oporretan.

Arrastoak

1.- Zuberoara joango dena ez da Itziar ez Koldo, eta ez ditu 20 egun emango oporretan, ez eta 25 egun ere.

2.- Gipuzkoa hautatu duena ez da Itziar, ez du ekaina aukeratu eta ez da 20 egun izango.

3.- Bizkaian izango denak apirila aukeratu du.

4.- Aitorrek 15 egun emango ditu Nafarroan, baina ez maiatzean ez eta ekainean ere.

		LURRALDEA				HILABETEA				EGUNAK			
		Bizkaia	Zuberoa	Nafarroa	Gipuzkoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	10	15	20	25
		A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L
IZENA	Itziar	1											
	Ane	2											
	Koldo	3											
	Aitor	4											
EGUNAK	10	5											
	15	6											
	20	7											
	25	8											
HILABETEA	Apirila	9											
	Maiatza	10											
	Ekaina	11											
	Uztaila	12											

Izena	Lurraldea	Hilabetea	Egunak
Itziar			
Ane			
Koldo			
Aitor			

5 ASMAKIZUNA

Bost zantzu zeri edo nori buruz ari garen aurki dezazun. Zenbat eta azkarrago aurkitu, orduan eta puntu gehiago lortuko duzu.

5 puntu

Letra batzuen arabera sailkatzen naute.

4 puntu

Beroa izan naiteke, baita hotza ere.

3 puntu

Gorria naiz, zenbaitek urdina naukan arren.

2 puntu

Jarioan irte-ten naiz, zaurituz gero.

1 puntu

Ni gabe, ez dago odolkirik.

NOR NAIZ NI?

.....

Uztailak 25 osteguna

- Santio Eguna. Zubietako jaiak uztailearen 24tik 31a bitartean.

Uztailak 31 asteazkena

- San Inazio eguna.

Abuztuak 3 larunbata

- San Esteban eguna. San Estebango jaiak abuztuaren 1etik 5a bitartean.

Abuztuak 16 ostirala

- San Roke eguna.

Abuztuak 31 larunbata

- Endika Abril txapelketa.

👉 GARAJEAK

- 🔧 Munalurran garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424
- 🔧 Motoak sartzeko lokala alokatzen da. Gazteentzako txoko bat alokatzen da. Telf. 656 759 583.
- 🔧 Yamaha XJ 600 motoa salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185 telefonora deitu.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- 🔧 Galtzaragaina elkartean bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- 🔧 Garaje itxia salgai Etxe-zurian (herri sarreran). Tarteko oina eta ate automatikoak ditu. Prezio onean; 2.200.000 pzta. Telf: 687 40 62 09
- 🔧 Galtzaragainan 20 m2-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. Goiko pisuan. 678 81 52 77 (arratsez).

👉 ETXEBIZITZAK

- 🔧 Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- 🔧 Baju edo ganbara bat erosiko nuke. Deitu iluntzean. 943 36 02 13.
- 🔧 Etxe bat alokatuko nuke. Beste batekin konparitzeko prest. Telefonoa: 626 680 915.
- 🔧 Atxegalden pisu bat salgai. Beheko Kale, 6. 2 Esk. 943 37 17 59.

👉 LAN-ESKAERAK

- 🔧 Neska bat eskaintzen da haurrak zaintzeko. 943 366485.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da haurrak zaintzeko gauzez. 943 371447 (Belen).
- 🔧 Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9:00etatik eta 14:00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako, derrigorrezkoa da gizarte segurantz. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat eskaintzen da arratsalde bi orduz umeak zaintzeko. Telf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- 🔧 Santixabeletan gustura egingo nuke lan. Beharrik baduzue, deitu 943 37 14 47 telefonora (Belen).

👉 LAN-ESKAINZAK

- 🔧 Emakume bat behar dut astean behin bi orduz arratsaldean etxea garbitzeko egiteko. 943 36 57 37.
- 🔧 Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko. Irailetik aurrera, 9:00etatik 14:30etara. 943 360 096 / 650 947 142.
- 🔧 Udarregi ikastolan kirol begiraleak behar dira. Tel: 943361216/ 943370645.
- 🔧 Tabernari bat behar dugu. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 360 217 - 649 211 665.
- 🔧 Tabernari bat behar da Txurru tabernan lan egiteko. Interesaturik bazaude, deitu 943 36 00 80 telefonora.
- 🔧 Pertsona bat behar dugu harategian lan egiteko, uztailean eta abuztuan. Tf: 943 37 20 34.
- 🔧 Tabernari bat behar dugu Antxeta Jatetxean lan egiteko. Deitu: 943 370 344.

👉 BESTELAKOAK

- 🔧 Opel Corsa bat salgai, SS-AL. 300.000 pezetan, kuota eta transferentzia barne. 943 37 26 92.
- 🔧 Txakurkumeak salgai. 3 hilabeteko setter ingelesak; desparasituak eta bakunatuak. Guraso ehiztariak. 150 euro. Tel: 679 207 156.
- 🔧 Ford Escort Ghia TD familiarra salgai. SS-BB, CD ekipoduna. Telefonoak: 657 796 777 / 943 37 19 54.
- 🔧 Volkswagen Santana bat saltzen dut. Telefonoa: 670 987 921 (Jon).
- 🔧 Andazpe elkartean bazkideak behar dira. Baldintzak jakin nahi badituzu deitu: 943 36 54 66.

- 🔧 Dominadun kate bat galdu du duela 15 egun. Aurkitzen baduzu deitu 943 37 00 56 zenbakira.
- 🔧 Andatzen Nike markako zapatila txuria galdu zuten. Baita egurrezko katea, kolorekoa. Deitu 943 36 59 75.
- 🔧 Apirilaren 24an Kalezarren txapel bat galdu zen. Bilatu duenak dei dezala: 943 36 12 35 / 943 36 60 14.
- 🔧 Urrezko pultsera galdu da. Lourdes izena jartzen du eta 17-3-81 data jartzen du. Eskertua izango da. Deitu telefono honetara: 943 361 182.
- 🔧 Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. 943 835441 telefonora (Begoña).
- 🔧 Volkswagen Golf GTI II saltzen dut, SS-AL. 15'Ilantak, irrati-kargadore Alpine... extrak. 2.000 euro. Telefonoa: 649 322 873.
- 🔧 Kazadora bat galdu zen Askatasuna plazan eta bilatu zuenak Kinkildegian utzi zuen. Zurea bada pasa den datik.
- 🔧 Eguzkitako betaurreko graduatuak galdu nituen maiatzaren 24an. Kiroldegitik frontoira bidean. Topatzen badituzu deitu 943 37 13 46, Maite.
- 🔧 Aterpe tallerrean uztailla eta abuztuan zehar pintura klaseak hartzeko aukera. Tel: 943 365 975 (goizez).
- 🔧 Laredon apartamentua alokatzen dut hondartza aldamenean. Interesatuak deitu telefono hauetara: 943 79 52 80 / 656 717 745.
- 🔧 Scooter bat saltzen da, 125cc. Interesatuak deitu 607 23 32 55 telefono zenbakira.
- 🔧 Erloju bat galdu da. Esferan koloreak ditu eta atzean izena eta data. Bilatzen baduzu deitu, 943 36 11 26.
- 🔧 Bigarren eskuko soinu txikia erosiko nuke, 120 bajukoa. Tel.: 943 37 03 59.
- 🔧 Vespa bat salgai, 200-TX markakoa. Telefonoa: 943 37 03 89.

140. lehiaketa

1978ko urriaren 1ean egin zen Kilometroak Zubietan.

kilometroak




Zubietan

e-posta: noaia.k.e@euskalnet.net



SALTXIPI

JATETXEA



► Ondo egokitutako
jangelak ezkontzak
eta jaunartzeak ospatzeko

► Kartako eskaintza: bazkariak,
afariak,...

*Sanesteban
jai zoriontsuak
opa dizkizuegu
guztioi!*



*Txokoalde, z/g
USURBIL*

*Telf: 943 36 11 27 / 943 37 10 94
Faxa: 943 36 55 54*